

# Euskadiko arduren eskutitza

## planeta zaindu dezagun

Brasilgo Hezkuntza eta Ingurumen Ministerioek, 2010eko ekainaren 5etik 10era Brasilian ospatuko den, "Haur-Gazteen Konferentzia Brasil 2010: Planeta Zaindu dezagun" topaketara herri guztiak gonbidatzen dituzte. Konferentzia hau, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2005-2014 Hezkuntzaren Hamarkadaren barnean dago. Euskal Herrian, Eskola Agenda 21 programan dauden ikastetxeen artean, "Ikastetxe Jasangarrien" Sarea-IRAES 21 taldean daudenek ekitaldi honetan parte hartzeko erronka hartu dute.

Nazioarteko Haur-Gazteen Konferentzia, Brasil 2010: Planeta Zaindu dezagun ospakizuna dela eta, gure ikastetxeetan Eskola-Konferentziak antolatu ditugu, eta gaur Urdaibai Erreserba Biosferan dagoen Madariaga Dorretxea-Euskadiko Biodibertsitate Zentroan bildu gara, Euskadiko Ikastetxe Jasangarrietako Gazteen Konferentzia burutzeko.

- Ave Maria (Bilbao)
- Elgoibar Ikastola (Elgoibar)
- Eretza LHI (Güeñes)
- Itsasoko Ama (Santurtzi)
- Jesus Obrero (Vitoria-Gasteiz)
- Ondarroa BHI (Ondarroa)
- San Viator (Sopuerta)
- Serantes LHI (Santurtzi)
- Virgen Niña (Amurrio)
- Lucas Rey (Amurrio)
- Gernika BHI (Gernika-Lumo)
- San Jose Carmelitas (Santurtzi)

Gure ingurugiroarekin konprometituak gaude eta horregatik gure eskoletan, familietan, herri eta hirietan, lurraldean eta bizi garen munduan bizi kalitatea hobetzeko lan egiten dugu. Gaurko egoera ezagutzen dugu eta hori aldatu nahi dugu. Horretarako elkar lan egiten dugu, komunitatea sentsibilizatuz, antolatuz eta ingurumen-arazoak gutxitzen dituzten jokabideak bultzatuz.

Horren ondorioa, "**Euskadiko Gazteen Arduren Eskutitza: Planeta Zaindu dezagun**", da, honen bitartez hurrengo puntuak betetzera konprometitzen gara:

1. **Gure ikastetxe, etxe eta herrietan energi kontsumoa murriztu: telebista eta ordenagailua ez direnean erabiltzen itzali, argiak itzali, aparatu elektronikoen "standby"-a kendu, telefono mugikorren bateriak guztiz deskargatuta daudenean kargatu, berogailua gehienez 20° C-tan jarri.**
2. **Uraren kontsumoa gutxitu eta gure ikastetxe, etxe eta herrietan modu egokian erabili: kanilak itxi, dutxatu bainatu beharrean, ura alferrik ez galdu...**
3. **Deforestazioa gutxitu zuhaitzak landatuz eta gure herrien lorategiak zainduz.**
4. **Garraio publikoa erabili, distantzia motzak eta ertainak oinez edo bizikletaz egin, hau gure planetarako ona delako, gutxiago kutsatzen delako eta CO2-en ekoizpena gutxitzen delako.**

Espanian eta Europan hartu diren ardurekin batera, Euskal Herriko ordezkariak diren Amaia eta Brian, ardura hauek Brasilgo Konferentziara eramatera konprometitzen dira, munduko beste ordezkariekin eztabaidatu eta elkartrukatzeko.

Busturia, 2010eko  
apirilak 20a



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA